ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko abenduaren 19a, asteazkena • 146 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

# BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“Espejoko SISEUren eta horren ondoan dauden etxebizitzen hondakin uren saneamendurako kolektore proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren informazio publikoa**

Ekainaren 19ko Foru Gobernu Kontseiluaren 339/2018 Erabakiaren bidez, “Espejoko SISEUren eta horren ondoan dauden etxebizitzen hondakin uren saneamendurako kolektore proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onarpena eman zaio.

Hori dela eta, indarrean dagoen Nahitaezko Desjabetzapenaren Legearen 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen arautegiaren 17. artikuluan ezarritakoaren babespean, esandako zerrenda informazio publikoan jarriko da 15 laneguneko epean, iragarki hau argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, argitaratutako zerrendan izan litezkeen akatsak zuzentzeko datu egokiak idatziz aurkeztu ahal izango ditu edonork, edo okupatu beharraren aurka ere agertu ahal izango da, funtseko nahiz formako arrazoiengatik. Azken kasu honetan, adierazi beharko du zergatik jotzen duen egokiagotzat, lortu nahi den helbururako, azaldutako zerrendan jasotzen ez diren beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea.

Interesaturik dauden erakunde, entitate, korporazio nahiz partikularrek eskuragarri dituzte lursailen planoak eta eragindako titularren zerrenda Gaubeako (Villanueva de Valdegovía) Udaletxetako iragarki taulan, horiek aztertu eta, bidezko izanez gero, alegazioak egin ahal izateko. Alegazioak, ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dituzte, ale bikoitzez, Foru Aldundi honetako Erregistro Orokorrean, bulego orduetan, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren Lege eta Administrazio Zerbitzuari zuzenduta (Probintzia plaza, 4 - 6. solairua, Vitoria-Gasteiz.)

Vitoria-Gasteiz, 2018ko aabenduaren 12a

*Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria*
*MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ESPEJOKO SISEUREN ETA HORREN ONDOAN DAUDEN ETXEBIZITZEN HONDAKIN UREN SANEAMENDURAKO KOLEKTORE PROIEKTUA
PROYECTO DE COLECTOR DE SANEAMIENTO DE AGUAS RESIDUALES DE UCEIS Y VIVIENDAS COLINDANTES EN ESPEJO

Esp./Expte. 2018/42

| FINKAREN ZK. | TITULARRAREN IZENA | KATASTROKO DATUAK | | UDALERRIA | APROBETXAMENDUA | ERAGINDAKO ONDASUNA | ERAGINDAKO AZALERA m² | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | POLIGONOA | LURZATIA | | | | BEHIN-BETIKOA | ALDI BATERAKOA | ZORTASUNA Saneamendua 3m |
| Nº FINCA | NOMBRE DEL TITULAR | DATOS CATASTRALES | | TERMINO MUNICIPAL | APROVECHAMIENTO | BIEN AFECTADO | SUPERFICIE AFECTADA m² | | |
| | | POLÍGONO | PARCELA | | | | DEFINITIVA | TEMPORAL | SERVIDUMBRE Saneamiento 3m |
| 1/000 | JOSE LUIS EGUILAZ SANTIAGO | 13 | 1052 | GAUBEA / VALDEGOVÍA | BARATZEA / HUERTA | | | 184 | 57 |
| 2/000 | BLAS GARNICA PEREZ DEL PALOMAR | 13 | 345 | GAUBEA / VALDEGOVÍA | LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO<br>ETZE LARREA / ERIAL A PASTOS | | 16 | 4.319<br>192 | 895 |



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2018.12.19 06:20:04 Z